

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

18/2022 Mozioa, martxoaren 7koa, indarkeria matxista motei buruzko azterlan bat egitea sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta instituzioekin lankidetzan arituz

Arabako Batzar Nagusi hauetako Lehendakaritza, Euskara, Berdintasun, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen I. Batzordeak, 2022ko martxoaren 7an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

18/2022 Mozioa, martxoaren 7koa, indarkeria matxista motei buruzko azterlan bat egitea sustatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta instituzioekin lankidetzan arituz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, indarkeria matxistaren borrokan inplikaturako Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde eta instituzioekin lankidetzan, eta Emakundek koordinaturako II. Institutio arteko Akordioaren esparruan, susta dezala Euskal Autonomia Erkidegoko indarkeria matxistei eta euskal gizarteak haietaz duen iritzinari buruzko azterlan bat egitea.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azterlan hori baliatu dezala berdintasunerako eta indarkeria matxisten aurka jarduteko politikak birdefinitzeko eta egokitzeko bide-orriaren lagungarri gisa.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote era koordinatuan parte har dezala emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako lege berrian aurreikusita dagoen behatokia sortzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lanean jarrai dezala Arabako Lurralde Historikoan indarkeria matxista deuseztatzeko. Helburu hori izango da berdintasunerako politika publikoen ildo estrategikoa, eta lankidetzan jardungo du lurraldeko gizarte-erakunde, mugimendu feminista eta instituzioekin, koordinazioa sendotzeko eta prebentzioaren, esku-hartzearen eta indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako erreparazioaren arloko alderdi guztia hobetzeko xedez.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 7a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA